

Gaur Josu Erkorekak Gobernu Bileraren ostean Zubietako Errauste Plantaren inguruan egindako adierazpenei erantzunez, GHK-k (Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak) honakoa adierazi nahi du:

- GHK-k ez du oraindik Eusko Jaurlaritzaren erantzun ofizialik jaso.
- Dena den, legea eskutan hartuta, Errauste Plantaren lizitazioan egin diren funtsezko aldaketen aurrean bai Eusko Jaurlaritzak eta bai obraren promotoreak, hau da GHK-k, erabaki lezake Errauste Plantaren obrak gelditzea. Hau da, obrak eteteko eskumena bi aldeek dute, eta ez Ingurugiro Baimen Bateratuak eman duenak soilik.
- GHK-k erabakigarriak diren aldaketak egon direla frogatu du, ingurugiroaren aurka doazenak, zepak eta erraustsak tratatzeko instalakuntzak lizitaziotik ezabatu dituztenean, eta ondorioz bere ekimenez obrek Ingurugiroaren Baimen Bateratua betetzen ez dutela erabaki du.

Egun hauetan argitara eman dugun bezala, Errauste Plantaren obrak eteteko arrazoiak tekniko-juridikoak dira. Alde batetik hondakin solido edo zepa kutsakorrek tratatzeko azpiegitura, eta errausts toxikoak tratatzeko azpiegitura kentzea baimendutako proiektutik, eta, bestetik, eraikuntza osoa baimendu baino hiru metro gorago eraikitzea, horrek lekarkeen eragin bisual eta kutsakorrik aztertu ere egin gabe

GHKko aurreko lan taldeak errauskailuaren lanak azterketa geoteknikorik gabe hasi zituen, eta horrek lur mugimenduak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak baimendu baino handiagoak izatea ekarri zuen, eta ondorioz eraikin behar ziren azpiegitura guztiak kabitzeke nahikoa leku ez zen geratu. Eta horregatik erabaki zen lizitaziotik kanpo uztea eta bertan ez eraikitzea errauskailuaren arriskua txikitzeke ezinbesteko diren bi azpiegitura horiek.

Beraz, ez da egia kutsadura tratatzeko azpiegiturarik ez dela inoiz agertu Zubietako errauste plantaren proiektuan. Kontrakoa: Lizitazio dokumentura iritsi aurretiko aurreproiektu, foru araua, ingurumen agindu eta egitasmoaren atal guzti-guztietan ageri dira, hasieratik bukaerara.

Hondakin solido kutsakorrek eta errausts toxikoak tratatzeko azpiegiturak Zubietako Erraustegiaren proiektua abian jartzeko Gipuzkoako Batzar Nagusiek (Foru Araua 7/2008) 2008ko abenduaren 23an onartutako Gipuzkoako Hondakin Urbanoen Kudeaketarako Plangintza Integralaren Garapen Dokumentuan ageri dira. Biak hala biak, ondo baino hobeto zehaztuta eta esplizitatuta.

Era berean, 2009ko uztailaren 21ean, Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak onartutako (Foru Dekretua 24/2009) Lurralde Plan Sektorialean ere ageri dira. Baina ez horietan bakarrik, baita Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak baimendutako Ingurugiro Baimen Bateratuan ere (2010eko apirilaren 23an). Eta, nola ez, baimen eta arau horiek guztiak jaso dituen Erraustegi Plantaren aurreproiektuan ere. Eta, urrunago joanez, baita baimen eta arau horiek denek oinarri, marko eta agindu duten lege guztietan ere, bereziki hondakin kutsakorren tratamenduari dagozkionetan.

Hernanin, 2013ko Uztailaren 16ean